

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskubide Sozialetako Departamentuak egoitza-plazak kudeatzeko esparru-akordio berriko lehiaketa ireki du, aurrekontua % 19 gehituz

Akordioan, erabiltzaileek plaza libreki hautatu, arreta-pertsonalaren ratioak hobetu, soldatak igo eta zerbitzu berriak sartzea aurreikusi da

Astelehena, 2019.eko otsailak 11

Eskubide Sozialetako Departamentuak, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren bitartez, hiru erlotan zatituriko esparru-akordioa onartu du, egoitza-arretarako 3.000 plaza, eguneko egonaldirako 200 plaza eta adineko pertsonen autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasuna prebenitzeko 800 plaza ere

eskain ditzaketen entitateak hautatzeko, betiere esparru-akordioa bukatu arteko urteetan dagoen aurrekontu erabilgarriaren arabera.

Akordioa gaur goizean aurkeztu du prentsaurrekoan Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako (PAGNA) zuzendari kudeatzaile Ines Francesekin eta PAGNAko Kudeaketa eta Baliabideetako zuzendariorde Carlos Aranarekin batera.

2018an, Eskubide Sozialen Departamentuak 1.708 plaza hitzartuak zituen egoitzetan; horietarik, 1.615 plaza ResideN programari atxikita eta 47 zentrotan banatuta, 39.071.780 euroko aurrekontuarekin.

2019rako, aldiz, plaza hitzartuen kopurua aurrekontu erabilgarriaren arabera eta eskainitako plazei dagozkien moduluen arabera gehitzea aurreikusi du. Nolanahi ere, esparru-akordiorako aurrekontua 46.501.482 eurokoa da (urte batetik bestera % 19ko hazkundera izan duelarik). Zenbateko horretatik, 44.810.480 euro egoitzako plazetara bideratuko dira, 2018an baino % 14,69 gehiago; 625.694 euro eguneko egonaldietarako izanen dira (66 plaza, guztira), eta 1.065.307 euro autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programetara joanen dira (800 plaza).

Epealdi osorako, esparru-akordioak 330 milioi euro inguru bideratzea



Ezkerretik eskuinera, Ines Frances, Laparra lehendakariordea eta Carlos Arana.

aurreikusi du, BEZ kanpo; eta kopuru horretatik, 7,8 milioi egoitzetako eguneko egonaldietarako izanen dira eta 5,8 milioi autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programetara joanen dira.

Akordio honek bi urteko iraupena izanen du, beste bi urte luzatzeko aukerarekin. Halaber, egungo ResideN programari lekukoa hartu eta horrekiko kontratua bukatua duten zentroak, 2019an bukatuko zaienak nahiz plaza hitzartuak ez dituzten zentroak barne hartuko ditu, esparru-akordioari atxikitako kontratu guztiak aldi berean bukatzeko eta ResideN programa bukaera-epe desberdinetako kontratuak izateak zekarren disfuntzioa gainditzeko.

Esparru-akordioaren ezaugarriak

Esparru-akordio honen bitartez eta horri atxikita esleituko diren plazen laguntzaz, gutxieneko egoitza-plazen kopurua lortu nahi da Nafarroako gizarte zerbitzuen oinarritzko eremu guztietan, egun horrelako zentroak erabiltzen dituzten adinekoen arreta segurtatzeko, mendekotasuna izan ala ez izan, eta etorkizunean horrelako zentroak beharko dituztenei erantzuteko, oinarritzko eremu horietan dauden eskariak eta itxaron-zerrendak kontuan hartuz.

Gainera, egoitza-zentroen entitate titular guztiak aurkeztu ahalko dira, baita zerbitzua emateko baimena duten eguneko zentroak eta landa eremuko eguneko zentroak ere, autonomia sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzuen kasuan.

Oraingo esparru-akordioan bildutako egoitza-plazak Eskubide Sozialen Departamentuaren menpeko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziari atxikitako Egoitza Arretarako Sare Publikoan sartuta geldituko dira.

Horrekin batera, esparru-akordio honen bitartez, egoitza-arretarako sare publikoak mugari bat ezarri nahi du zerbitzuen eskaintzan, pertsonak eta hauen beharrak erdigunean kokatzeko, ahal den neurrian pertsonen lehentasun eta gogoetara egokitzeko eta zainketa pertsonalizatuei nagusitasuna emateko, baita pertsonendako adierazgarriak diren jardueri, etxe giroari, familiendako arretari eta abarrei ere, antolaketa eta osasun arloko irizpideen gainera.

Halaber, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzuak eta eguneko egonaldiak eskaintzeko aukera erraztu nahi die zentroeiei, izan ere, gertuko zerbitzu horien laguntzaz, mendekotasun egoera dauden pertsonak luzarago egoten ahal dira beraien etxeetan, egoitza-zentroeiei komunitatean txertatu eta zerbitzu osagarriak eskaintzeko modua luzatuz.

Esparru-akordioaren berritasun nagusiak

Erabiltzaileak egoitza-zentroa hautatzean duen funtsezko eginkizuna da sistema berriaren berritasun nagusietako bat, erabiltzaileak aukeratuko baitu egoitza-zentroa haren bizitoki eremuan dauden plaza erabilgarrien arabera.

Aurrekoari loturik, egoitza-zentroen entitate titularrek, baimendua duten plaza kopuruaren barnean, hainbat plaza eskaini ahalko dizkiote Eskubide Sozialen Departamentuari, baina honek ez ditu plaza horiek hitzartu beharko, erabiltzaileen eskari eta erabakiaren arabera egingo baitu. Honela, plaza hitzartuen estaldura mapa hautaketaren arabera aldatuko da, pertsonen eskariarekin bat eginik.

Berritasuntzat jotzeko modukoa da, halaber, nola kalkulatu den plazaren prezioa eta modulua (prezioa/plaza). Moduluetarako, aintzat hartu dira zentroeiei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak, pertsonalari buruzko ratioak eta egoitza-zentro bakoitzeko erabiltzaileen artean menpekotasuna dutenen eta ez dutenen portzentajeak. Hiru aldagai hauen arabera, bederatzi modulu finkatu dira, eta horrela, entitateak alde aurretik jakin dezakete zein den haietako bakoitzari dagokion modulu.

Azken finean, sistema honen laguntzaz, erabiltzaileendako zerbitzua hobetu nahi da, izan ere, alde batetik, arreta zuzeneko ordu kopuru handiagoa eskatu eta sustatzen du erabiltzaile bakoitzeko, eta bestetik, zentro desberdinetan diharduten profil bereko langileen ordainsari eta soldaten arteko hurbilketa bultzatzen du, Nafarroa osorako hitzartze prezio bakarra lortzeko bidean aurrera egiteko asmoz.

Lehendabiziko aldiz, eguneko egonaldiak ere hitzartuko dira, mendekotasuna duten pertsonen etxean

egoten lagundu eta zaintzaileak babestea xede duten zerbitzuen katalogoa osatu eta dibertsifikatzeko.

Beste berritasun garrantzitsu bat da autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programak egoitza-zentroetan eta mendekotasuna duten pertsonendako eguneko zentroetan sartzea, modu anbolutarioak horietaz profitzatzeko aukera izan dezaten. Programa horiek egoitzetan eta eguneko zentroetan garatuz gero, zerbitzu horien eskaintza lurralde osora hedatu eta gizarte zerbitzuen oinarritzko eremu guztien erabilgarri jarri ahalko da, mendekotasuna duten herritar gehienek mesedetan. Gainera, eskaintza 5 eta 10 pertsona bitarteko taldeetarako izanen da eta ez die inongo kostu ekonomikorik ekarriko erabiltzaileei.

Prestazio honen barnean, honako zerbitzu eta programa hauek eskainiko dira:

-Gaikuntza eta terapia okupazionalaren zerbitzua: autonomia funtzionala sustatu, mantendu eta berreskuratzeko ariketa fisikoko programa, osasuna eta autozainketa sustatzeko programa, gaikuntza funtzionalerako fisioterapia programa, gaikuntza funtzionalerako terapia okupazionalerako programa.

-Estimulazio Kognitiboaren Zerbitzua: Estimulazio Kognitiboko programa.

-Autonomia funtzionala sustatu, mantendu eta berreskuratzeko Zerbitzua: Eguneroko bizimoduko jardueretan autonomia hobetzeko programa.

Esparru-akordioaren helburuak

Esparru-akordio berriaren bitartez, arreta integrala eskaini nahi zaie mendekotasun egoera dauden adineko pertsonen oinarritzko beharrei, behar terapeutikoei, errehabilitazio arlokoiei zein soziokulturalei, pertsona ardatz duen arreta ereduaren laguntzaz.

Horretarako arreta zuzeneko ratio profesionalak handitu eta langileen soldaten arteko hurbilketa sustatu da, egoitza-plazak kontratatzeke lehengo "Resident" programan zeuden hutsuneak detektatuz eta kontrataturiko zerbitzuen prestazioarekin batera honako hauek hobetuko dituzten elementuak sartuz:

- Plaza publikoen eskaintzaren eta plaza bermatuen eskariaren artean dagoen lurralde mailako desoreka zuzentzea.

- Erabiltzaileei zentroa hautatzeko aukera ematea. Esparru-akordioari atxikitako sistemak ez du plaza kopuru finkorik zentro bakoitzeko, baizik eta plaza hutsak bajak gertatu diren egoitzetatik kanpo estali ahalko dira. Horrek zentroen interesa ere sustatuko du, arretaren kalitatea hobetzeko.

- Pertsona ardatz duen arretaren filosofia eta horri atxikitako tresnak jarduera profesionalean sartzea. Egoiliarrek erabaki-hartzeetan parte hartzea, bizitzako istorioak, erreferentziak profesionala, ordutegi eta jardueren egokitzea, ohiko funtsezko jarduerak osagai terapeutikotzat diseinatu eta betetzea, pertsona kopuru txiki biziak unitateak, arreta mailako profesionalen txandakatze txikiagoa, familien parte-hartzea eta zentroak komunitatera irekitzea.

- Malgutasun handiagoa mendekotasuna dutenendako zein ez dutenendako egoitza-plazen proportzioan.

- Aurrekontu eskuragarriari loturiko plaza kopuru handiagoa izatea, zerbitzuari loturiko prestazioak plaza publikoak bihurtu ahal izateko.

- Agentziaren eta egoitza-zentroen arteko partaidetza iraunkorrerako organoa eratzea, akordioaren jarraipena eta koordinazio teknikoak egiteko. Halaber, kanpoko zein barneko ebaluazio sistema aurreikusitako da. Kanpoko ebaluazioaren helburua izanen da zentroek pertsona ardatz duen arreta eredu bat betetzen ote duten egiaztatzea, eta horretarako, pertsonen, senitartekoen nahiz langileen iritziak aintzat hartuko dituen ebaluazio metodo berritzailea sartu eta langileei zuzendutako formakuntza plana egingo da.

- Moduluaren kostua egiazko kostura hurbildu eta hitzartutako prezioa arreta-ratioekin zein lan-baldintzen hobekuntzarekin loturiko modulu-sistema baten bitartez objektibatzea. Horren harira, gauean, gutxienez, arreta zuzeneko bi pertsona egotea eskatuko da, eta abidide gisa, mendekotasuna duten pertsonendako urteko 642 orduko batez besteko arretatik 700 orduko arretara igaroko da. Honela,

zentroekin aldebiko akordioak egin beharra baztertu eta zerbitzuen kalitatea kostuarekin eta ondoriozko finantzaketa publikoarekin lerrokatuko da.

Halaber, hauexek dira esparru-akordiorako finkatu diren prezioak: mendekotasuna aitortua duten pertsonendako egoitza-plazaren hileko modulua 1.668,38 eta 2.391,67 euro bitartekoa izanen da, eta mendekotasuna aitortu gabe dutenen kasuan, 1.268,32 eta 1.643,59 euro bitartekoa. Modulu hauek % 10 eta % 15 bitarteko batez besteko igoera ekarri dute ResideN programari atxikita egindako kontratuen aldea. Eguneko arretarako plazetan, ordea, hilekoa modulua 566,75 eta 812,45 euro bitartekoa izanen da.

Azkenik, akordio honen bitartez ezarri beharreko hitzartze sistema koherentea izanen da esparru-akordioari atxikitako kontratu guztien iraupenari, epeei nahiz aldi bereko bukaerari dagokienez, hitzartutako plazak kontratu bidezko estaldurarik kudea ez daitezzen.